# ABENDUAREN 3A, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
# MOZIOA

1949an Eusko Ikaskuntza Erakundeak eta Euskaltzaleen Biltzarrak abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu zuten egun hartatik, guztiontzako ospakizun eguna izateaz gainera, gure hizkuntzarekiko dugun konpromisoa berresteko eguna ere bada.

Denon ahaleginari esker ibilitako bide luze honetan, 1982. urtean onartu zen Euskararen Legea, euskal hizkuntza berreskuratzeko prozesua bultzatzeko oinarria izan dena. Egun honetan, arau haren balioa azpimarratu beharra dugu. Lege hura, inoiz euskal normalizazioaren esparruan lortu izan den adostasun zabalenari esker onartu zelarik, euskal gizarteak euskararen eta bizikidetzaren alde mantentzen duen konpromiso irmoaren isla nagusia da.

Hiritarrei eta euskal erakundeei dagokie, era progresibo eta orekatuan, lege honek barnean dituen ahalmen ugariak garatzea, honakoetan eraginez: alde batetik, euskararen garapena handitzea oraindik presentzia urria duen esparruetan eta, bestetik, orain arte egindako bidean lortu diren hiztun berrien beharrizanak asebetetzeko egokitzea.

Pertsona, hizkuntza eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiek behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Pertsona bakoitzaren hizkuntza aukera errespetatu behar dugu, eta ahaleginak egin behar ditugu hala nahi duten guztiek euskara ikasteko aukera izan dezaten; ikasketak euskaraz egiteko parada eduki dezaten aukera hori hobesten duten guztiek eta, edozein esparrutan, eremu pribatuan zein publikoan, euskara erabiltzeko duten eskubidea aitortu, errespetatu eta bermatu behar zaie. Azken finean, euskararen erabilera bultzatu

*Desde que en 1949 La Sociedad de Estudios Vascos- Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaleen Biltzarra establecieron el 3 de diciembre como día Internacional del Euskera, además de ser un día de celebración para todos/as, es también un día de renovación de aquel compromiso para con nuestra lengua.*

*En el largo camino recorrido gracias al esfuerzo de todos/as, en 1982 se aprueba la Ley del Euskera, que ha constituido la pieza angular para impulsar el proceso de recuperación de la lengua vasca. Es en este día cuando debemos destacar el valor de dicha norma: aquella ley, aprobada con el más amplio consenso jamás registrado en el ámbito de la normalización del euskera, refleja el firme compromiso de la sociedad vasca a favor del euskera y de la convivencia.*

*Compete a la ciudadanía e instituciones vascas, desarrollar, de forma progresiva y equilibrada, las múltiples potencialidades que encierra esta ley incidiendo, por un lado, en el impulso del desarrollo del euskera en aquellos ámbitos en los que su presencia es aún reducida y, por otro, consolidando y adaptando a las necesidades de los nuevos hablantes el camino recorrido.*

*Todas las personas, lenguas y culturas son iguales en su dignidad. Todas necesitan un estatus de igualdad y un estado de paridad, al objeto de perdurar sin dependencia alguna. Para ello, a cada lengua han de garantizársele el grado y la perdurabilidad que le corresponden en la totalidad de su territorio.*

*Debemos respetar escrupulosamente la opción lingüística de cada persona y esforzarnos en que quien así lo desee pueda aprender el euskera, si no lo sabe; tenga la posibilidad de estudiar en euskera si así lo desea; y se le reconozca, respete y garantice el derecho a usarlo en cualquier ámbito, tanto público como privado. Se trata, en definitiva, de promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida. Que pueda vivir en euskera, en*

behar da bizitzako esparru guztietan. Hala nahi duenak euskaraz bizitzeko parada izan dezan, eta euskarak Euskal Herri osoan gaztelaniak eta frantsesak dituzten garapen eta hedapen sozial bera izan ditzan, aukera berdintasunean. Azken finean, euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Honek ez ditu arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k), ezta gaztelaniaren eta frantsesaren garapen osoa ere.

Ondorioz, ezinbesteko helburu izango ditugu geure hizkuntza indartzea eta normalizatzea. Hori horrela izan dadin, hiritar bakoitzaren konpromisoa da euskarari balioa eta erabilera ematea bere inguru hurbilenean. Herri erakundeei, bestalde, erabateko inplikazioa eta esku hartzea dagozkie, bizikidetza eta bakoitzaren hizkuntza aukera errespetaturik, euskararen ezagutza, transmisioa eta erabilera egoera orotan areagotzea ahalbidetuko duten ekimenak sustaturik eta bere gain harturik.

Horiek guztiak dira ezinbestekoak, gero eta euskal gizarte askeagoa, gero eta elkartuagoa, gero eta orekatuagoa eraikiaz joango bagara. Eta hala adierazten dugu 2011ko Euskararen Nazioarteko Egunean.

Adierazitako guztiak aintzat hartuta, beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerri honetan, euskarazko elebitasunean eragitea eta, norabide horretan, Udal honek ondorengo konpromisoak hartu ditu:

1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.

2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.

3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere barne funtzionamendua euskaraz izan dadin.

*plenitud, quien así lo desee, y que el se proporcione al euskara un desarrollo y difusión similares a los del español y el francés, con igualdad de oportunidades. En última instancia, un País Vasco que quiere vivir en euskara es bueno para todos/as, no conllevando riesgo alguno para las lenguas no eusquéricas de los vascohablantes, para el castellano, o para el francés.*

*Debemos asumir, pues, como objetivos irrenunciables para el fortalecimiento y la normalización de nuestra lengua, un compromiso por parte de cada ciudadano/a para la revalorización y uso del euskera en el entorno más próximo. A las instituciones públicas, por su parte, les corresponde una plena implicación e intervención que, respetando la convivencia y opción lingüística, promoviendo y asumiendo iniciativas para la transmisión y el uso del euskera en todas las situaciones.*

*Todos estos aspectos son imprescindibles para construir, día a día, una sociedad vasca cada vez más libre, más cohesionada y más equilibrada. Y así lo declaramos con motivo del día Internacional del Euskera de 2.011*

*Resulta por ello necesario incidir en el bilingüismo de nuestro municipio, para lo que este Ayuntamiento adopta los siguientes compromisos:*

*1.- Este Ayuntamiento hará cuanto esté en su mano al objeto de impulsar y garantizar la euskaldunización del personal adscrito al servicio público.*

*2.- Este Ayuntamiento hará cuanto esté en su mano al objeto de que la primera palabra del personal adscrito al servicio público sea en euskara.*

*3.- Este Ayuntamiento hará cuanto esté en su mano al objeto de que el funcionamiento interno del mismo sea en euskara.*

*4.- Al objeto de garantizar los derechos lingüísticos individuales y colectivos de la*

4.- Udal honek udalerri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure udalerrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatzea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du.

*comunidad euskaldun, este Ayuntamiento se compromete al desarrollo integral de un plan integral cuyo objetivo final es la garantía del derecho a vivir en euskara en los diferentes sectores y ámbitos de nuestro municipio.*